

## Bilbo Hobbita, Euskal Herritarra



### ***Hobbita edo joan-etorri bat***

Jatorrizko izenburua: *The Hobbit. There and Back Again*

Egilea: J.R.R. Tolkien

Itzultzailea: Sergio Ibarrola eta Xabier Olarra

Argitaratze urtea: 2008

Argitaletxea: Igela

### KARLOS DEL OLMO

Zaila da ezer berririk esatea gaur egun Mendebaldeko kultur tradizioan halako errotuta dagoen lan literario baten gainean, batez ere, *Hobbitaren* antzera, ipuin folklorikoetatik, fantasia gotikotik eta heroi epikatik edaten badu. Lehen idazketan argia ikusi zuen 1937an, eta 1951ean berridazketa garrantzizko bat izan zuen, *Eraztunen Jauna* Ingalaterran argitaratzeaz batera; baita 1956ean ere, Estatu Batuetan plazaratzean.

Itzulpeni dagokienez, 1947an suedieraz eman zuten, baina Tolkieni itzulpen askeegia iruditu zitzaion, *hobbit* berba bera ere ordaindu zutenez gero. Gerokoan, *Eraztunen Jauna* eleberriak izandako arrakastak *Hobbita* ere areago itzultzea ekarri zuen, Tolkien bera bizirik zela agertu ziren batzuk: alemanez 1957an eman zuten, nederlandez 1960an, polonieraz 1960an, portugesez 1962an, espainieraz 1964an, japonieraz 1965ean, danieraz 1969an, 1969an frantsesez, norvegieraz 1972an, italieraz 1973an.

Itzulpen joera ezberdinak agertzen dira idazlan hau emateko orduan, esaterako, portugesez, gaztelaniaz, frantsesez eta italieraz, itzulpen argia duten patronimikoak eta zenbait toponimo ere itzultzen dituzte (hala jokatu zuen Agustin Otsoa Eribekoak *Eraztunen Jauna* lanean), euskarazko bertsio honetan ez bezala. Euskarazko protagonista, beraz, ingelesezko berbera izango da, Bilbo Baggins hobbita. *Dictionary of Obsolete and Provincial English* hiztegiaren arabera, *bilbo* bat zer eta Euskal Herrian, Bilbon (!) egindako ezpata ospetsu eta bikaina zen! Ezpatariari *bilboman* zeritzoten. Baggins izenari doakionez, bestalde, Tom Shippeyk *The Road to Middle-Earth* liburuan aipatu zuenez, *baggin* terminoak zerikusia ei du arkume larruz eginiko artzain zorro (*bag*) mota batekin edo hartan eroandako gauzekin.

Zenbait adituri neketsu egiten zaie Tolkienen lanak XX. mendeko kanonean sartzea, baina ezin ukatuzkoa da John Ronald Reuel Tolkien irakasle hegoafrikarraren lana ahozko eta idatzizko tradizioan jasotako Mendebaldeko iruditegi kolektiboan zehar eginiko bidaia aberats-aberatsa dela. Haren eleberriak psikologia, antropologia, folklorea eta beste hainbat jakintzagai oinarri aztertu dituzte, unibertsitate tesietan eta guzti. Begi bistakoa da *Hobbitak* eta *Eraztunen Jaunak* eduki inkontziente handia dutela, eta horrek irakurlearen interesa trebe ere trebe harrapatzen duela. Izan ditzakeen eduki ezkutuek egungo kultur parametroekin eta edukiekin zein irakurleen nahiekin zerikusi handia bide dute. Mendebaldeko eta mundu osoko gizakion balioen bilduma erakargarria aurkezten dute, giza eta eme seme-alaba gehienok ezagun ditugun arketipo psikologikoak.

Jaki ederra prestatzen asmatu zuen Oxford Unibertsitatean antzinako ingelesa eta hizkuntza eta literatura ingelesak irakatsi zituen maisuak bere barruko fantasia, tradizio literario eta hizkuntzazkoak, mitoak eta heroiaren arketipoa osagai erabilia.

Egun zaleen artean ia mitiko bihurtu den "Lurrean, zulo batean, hobbit bat bizi zen" esaldi ospetsuarekin hasten den ume ipuin antzeko hau apurka-apurka nagusientzako eleberririk onenaren pareko konplexutasuna irabaziz doa trama berbazko jario jori baten bitartez ehundu ahala.

Mendebaldeko eta munduko literatura betiko aldatu zen 1937an *Hobbita* mundura jaio zenean.

Bilboren eskutik hainbat nagusik berreskuratu zuten txikitako ipuin eta kontakizunetan datzan lilura, eta hainbat gaztek eta txikik gizakion mito eta heroi handien lurralderako sarbidea eskuratu. Tolkienek istorio bat ez ezik, unibertso oso eta koherente bat eratu ere zuen; guztia antzinako literaturatik edaten duen kalitate handiko hizkera literario batez. Generoaren eta egilearen aurkaririk sutsuenak berak ere ezin uka lezake *Hobbita* plazaratu osteko urteotan argia ikusi duten fantasiako liburu gehienak, aldez edo moldez, Tolkienen unibertsoaren zordun direla.

Hainbat hizkuntzatan Tolkienen lanek itzulpen saio bat baino gehiago izan dute. Euskaraz ere bi eskola edo saio ditugu, itzultzaile eta argitaletxe ezberdinek eman dituztelako *Eraztunen Jauna* eta *Hobbita*, eta igarri-igarriak dira itzulpen joeren arteko aldeak. Xabier Olarrak eta Sergio Ibarrolak ingelesezko izenei eustea erabaki dute, esaterako, ordea, kanten eta poemen eta enparauen itzulpenak oso modu euskaldunduan ordaindu dituzte. Honako bigarren pauso hau ez da abiaburu makala geroko belaunaldiek edo itzultzaileek Tolkieni euskaraz zor diogun "tornuya" eman ahal izateko. *Almarë, enomentuvalmë!*